

LE GRAND TOURNANT DU SOCIALISME

(R o g e r G A R A U D Y)

« Ezina de aurrerakoan isiltzea »; hitz hauetaz ideki du Garaudyk bere liburu famatua, eta hitz horietxen bidez bukatu du.

Liburu mamitsua, irakur-erraza, beroa ere bai. Oso gogoan hartze-koa euskaldunon artean. Eta oso ere pozgarria BRANKA'koontzako, Garaudy jaunaren ideia nagusiak geureak bait dira; eta behin eta berriz agertu bait ditugu gure aldizkarian : ondoko hauetan bereziki : 3-4-gn. banakoan (« La Autogestión en Yugoslavia »), 5-gn. ean (« Algunas ideas sobre una Euzkadi Socialista » eta « Por un socialismo vasco »; eta, talde gisa, 6-gn. ean (« Estudio »).

Liburuak sei kapitulu ditu. Seiak irakurgarri, seietan aurki bait diteke Garaudyren ohar zorrotzik. Uste dut, halere, hirugarren eta laugarren parteak dirala guretzako interesgarrienak; eta segida huntan horietaz luzatuko naiz batez ere. Hirugarren kapitulan Garaudyk U.R.S.S.-eko « modelo » (= sozialismo-mota) aztertzen du, eta laugarrenean Yugoslabiakoa. Txekoslobakiako eta Txinako arazoak bidenabar bederen aipatzen ditu, zenbait iritzi garbi utzirik. Lerro labur hauetan denen bilduma bat egiten saiatuko gera, ideia nagusiak nabameneraziz, eta irakurleari liburura berera jotzeko gogoia piztu nahiz.

Garaudyren azterketaren eragileak

Zerk bultzatu du Garaudy hausnarketa garratz hortara? Zerk urrundu du Fraitziako Kom. Alderditik? Zerk eraman du, hitz batez, marxismo-leninismoaren ortodoxia ofizialetik, heterodoxia eta errebisionismo ausart horietara? Garaudyk berak aitortzen digu : « 1968-ko udaberri bikoitza izan da gogoeta hauen abiaburua : Pariskoa eta Pragakoa. Baita bi udaberrien ondoko hondamena ».

Garaudyk Txekoslobakiako okupazioa gaitzetsi zuen hasieratik; eta gero eutsi egin dio bere esanari, batzutan Alderdiaren arbuioa bilduz. Eta liburu huntan berriro ekiten dio orain dala urte t'erdiko bere irizkerari : « Fraitzian guk eraiki nahi dugun sozialismoa ez da Txekoslobakian indarka zuek onhar-arazten duzuten hori ! » (14); edo « Fraitzian guk sortu nahi dugun sozialismoa ez da Brexnefek Txekoslobakiari onhar-arazten diona » (281).

Garaudyk ez du anti-sobietismoan erori nahi, ezta Yugoslabiako modeloaren apologetikan ere. Eta bere hitzak neurtzen saiatzen da. Liburuaren irakurleak, halere, ondorio bat ateratzen du ezin-bestean : Garaudyk Moskuko modelo gaitzesten duela osotara, eta, soluzio gisa, Yugoslabiako joera proposatzen digula gutxi gora-behera sozialista eta komunista guziori.

1968-ko gertaeren kakoa Garaudyren ustez

Beste askok bezela, joera sakon bat aurkitu uste du Garaudyk 1968-ko gertaeretan (eta bandera beltzek agirian utzi zuten) : aparato guzien kontrako herra osoa, giza-nortasuna garai-arazi beharra; Marcuseren hitzez nik esateko, sisteman « integratzeko » arriskuaren aurkako bildur guzizkoa.

Arrisku hau oso egiazkoa da, zoritxarrez; eta Garaudyk ez du izkututzen. Jakina da, dio Garaudyk, U.S.A.-ko sindikatoek Viet Nam-go amerikar politika onhartzen dutela (78); eta, batez ere, Amerikari dagokionez, « langile-klasearen integrazioari buruzko H. Marcuseren tesiak ukatzea zail litzakeala » (67).

U.R.S.S.-eko eskualdeetan oso fenomeno antzekoak aurki ditezke; eta nekez uka diteke hango erresuma pertsonagandik urrun gelditu dala, kontra dagoela ere askotan; eta U.R.S.S.-eko instituzionak, sindikatoak, prentsa, eta abar, hondarreko funtsean Erresumaren ekarle eta laguntzaile itsu besterik diranik. Txekoslovakia-ko gertaeretan, horrengatik, aparatoren kontrako nahia izan zan nagusia.

Jendearengan, beraz, 1968-an aldakuntzak eskatzen zituztenengan (bai Ekialdean bai Mendebaldean) Garaudyk « subjektibitatea » garai-arazi-nahia somatu uste du. 1968-ko lehertzapenetan Garaudyk garbi ikusi uste du pertsonatasuna goratu-nahia eta aparatokeria guziak salatu beharra. Gizonak bere « ni-tasuna » salbatu nahi du integrazioaren zamapean. Horra hor, marxisten arabera esateko, 1968-ko oinharri « subjektiboak ».

Hori zerbait da, noski. Baina nahikerian edo « boluntarismoan » ez erortzekotan besterik behar da. Eta Garaudyk, beti marxismoaren bide-tik, oinharri « objektiboan » bila abiatzen da. Eta hauek bi mailatan edo sailetan aurkitzen ditu : produzioko lanaren aldaketan batetik, eta astia erabiltzeko moduan bestetik.

Produzio-moldeari dagokionez, Garaudyk hiru teknika-aldakuntza aipatzen ditu : atomo-indarra, kosmo-ikerketa, eta zibernetika edo automazioa. Baina, egia esateko, elektronikaren bidez sortzen hasi dan zibernetika iruditzen zaio produzio-moldeetan guziz aldatzaile eta iraultzaile. Garaudyren ustez, zibernetikak bigarren teknika-erreboluzio bat ekarriko du, industriaren hastapenetakoa bezin sakona; eta, hauxe agerrarazten du baitipat, erreboluzio edo iraultza hori guttiz bestaldera dator.

Alegia : hasierako mekanizazio-aldian, langileak ahalik eta gutxienik pentsatu behar zuen, eta Marxen esaera ezaguna egia huts bihurtzen

zan : gizona ez da makinaren « haragizko eraskin bat » baizik. Errazago izan lana, eta hobe omen (Chaplinek ederki azaldu zuen joera hau bere mintza ospatsuetan). Langileak ez zukean eskola-beharrik : heziga-beago eta merkeago eta hobe. « Ez pentsa », zan Taylorzaleen leloa. Produzio-teknikek, hitz batez, langilearen subjektibitatea estaltzera eta ukatzera zeramaten.

Ordinadoreek fenomenua itzuletara jarri dute ; eta beren sarrera ez da gaur gaurkoz hastapen bat besterik (65.000 ordinadore munduan 1968-an, Garaudyk dionez - 291). Zibernetikak aldatu egiten ditu problemak, eta aldatu egingo ditu soluzioak. Hain zuzen ere, automazioak gizona liberatu eta jaregin egingo du lan mamigabe, aspergarri eta aztunetatik ; aztuna, hain zuzen, beti bat dalako, programagarri baita. Ordinadoreak, beraz, lan « gizatarragotara » eramango du gizona. Hau egia dana ezin uka diteke ; eta ordinadoreak erabili ez dituen irakurleak, irakurtzea dauka Aurel David'en liburu labur mamitsua : zibernetikak « gizatartu » egiten du langilearen lana. Puntu huntaz Garaudyk lerro beroak idatzi ditu (irakur 25, 26, eta urrengo orrialdeak).

Eskuzko langileen kopurua (« lepoko urdin » ena), hori dala bide, beheruntz doa ; eta buruzko langileen kopurua (« lepoko zuri » ena) goruntz. Langilerian « mutazio » bat dago ; eta mutazio hau oinharri objetibo bat da : langile berriak, baita lanerako ere, xedeak ezarriz, ordinadorearen emanak gonbaratuz, pentsatuz, asmatuz eta erabakiz, bere buruz pentsatu behar du ; eta ez « haragizko eraskin » huts izaki.

Soziologiak dato gogoangarriak ematen ditu ; eta Garaudyk batzuk aipatzen ditu. Zibernetika aurreneraino eraman duen erresuma, gaur arte, U.S.A.-koa da (42.000 ordinadore). Hots, Ameriketara hau erakusten dute estadistikek (76) :

1900	%-eko 17,6 langile « lepo-zuri »
1965	%-eko 44,5 langile « lepo-zuri »

(Nekazariak, bidenabar esan dezagun, %-eko 5,9 besterik ez).

Erakaskintzari dagokionez joera bera :

1900	24.000 erakasle
1920	49.000 erakasle
1969	480.000 erakasle

« U.S.A.-n, U.R.S.S.-ean bezela, zazpi zortzi urte guzietz ikertzaileen kopurua bikoiztu egiten da » (27).

Fenomenu nabarmena da, hortaz, langile « klasikoa » (eskolagabea, eskuzko lanetan ari, eta abar) behera doala ; eta, bere ordean, langile eskolatua, « alkandora zurikoa », eta hitz batez, « cadre » dalakoen mailakoa, gora doala. Langile da hau ere ; eta laister kopuruz besteari nagusituko zaio. Hots, nabarmen denez, langile berri hori (ijeñero, tekniko, operatzaile, ekonomista, eta abar) ez da, izan, inundik ere Marxek orain dala ehun urte ezagutu zuen langilea. Bai, noski, klasetasunari dagokionez, eta Garaudyk behin eta berriz gogorazten digu ; bainan ez psikologiaz eta produzio-moldeaz.

Bego hori bere hortan lanaldiari dagokionez. Eta oldar gakizkion astialdiari.

Garaudyren hariari beti jarraiki, astialdian ere langileak gero eta aukera haundiago du bere nortasuna osatzeko. Gaurko lana orain dala mende batekoa bezin nekagarri ez izanik (eta gero eta gutxiago hau, zibernetika produzioan hedatu ala) langileak bere burua jazteko, eskolatze eta aberastutze era izango du. Fourastié'ren iritziak eta U.R.S.S.-eko soziologilarien iritziak bilduz, « astean 30 lan-ordu, eta urtean 40 lan-aste » bizitzeko lain izango dirala dio Garaudyk. Langile horri buruz pentsatu behar dugu, beraz, sozialismoa; ez joan dan mendean aztertu zan langile eredu hartaz (kopuruz eta dinamikaz gutxituz doan hortaz hain zuzen).

Hitz batez, bai langilearen nahiak, eta bai langilearen eginkizunak, bai oinharri subjelibok eta bai objetibok, aldakuntza sakon bat, produzio mailako iraultza bat, egiazko « mutazio » bat erakusten digute. Azterpide baldin bada marxismoa, eta ez dogma-zerrenda bat, gaurko oinharri horietan finkatu behar dira bai sozialismoaren helburuak, bai sozialismo hortarako estrategia eta taktika.

Langile-klase berria

Gramsci aipatuz, gaurko langileria nun dan eta zertan datzan azaltzen saiatzen da Garaudy, beti ere Marxen irizpideez baliatuz.

Langileak (bai eskuzkoak, bai buruzkoak) « plus-valía » edo irabazkina sortzen du bere lanaz; lan hori ugazaba baten menpean egiten du; eta erabiltzen dituen produzio-tresnak (industria-lanabesak izan, ordinadoreak izan, edo besterik edozer) ez ditu bereak, ugazabarenak baizik. Langileria, hortara, eskuz ari diran langileek eta buruz ari diran intelektual langileek (alegia, alkandora urdinek eta alkandora zuriek) osatzen dute. Giza-multzo hauxe da langileria berria (« bloc historique nouveau » dio Garaudyk). Nahiz ijeñero batzuk — zuzendaritzaren ondoan daudenak — oraindik ere lotuago egon burgesiarekin langileriarekin baino, talde gisa, teknikoen eta « kuadro » en multzoa langileriarekin atal bat da. Langile-klasea ezin diteke, inoraz ere, « Marxen pentsamentutik oso urruti dagoen langilekeria batera erori gabe, eskuzko langile soiletara bil ».

Ikasleak eta intelektual langileak, bestalde, ez dira gizamultzo berberaren bi adin edo aldi baizik: gaurko ikaslea, biharko « lepozuria » dateke. Ikasleak, beraz, « kondaira-multzo berri » hortako parte dira.

Horra hor, beraz, langile-klase berria. Sozialismoa gizatalde horrek ekar dezake, eta ez bestek; eta gizatalde berorri buruz egin behar da lana. Hau egitea, bestalde, ez da « erdiko klasearekin » alkartasun taktiko bat egitea. Nahiz nekazari txikiek, merkatari txikiek, eta abar, monopolioen kontra daudelako, gaur indar aurrerazale izan; halaz ere tekniko bat eta dendari bat, eman dezagun, ez daude, klasetasunari

dagokionez, egoera berean. Garaudyren « gizatalde berri » horren gotortasuna bestelakoa da ; teknikoaren eta langile klasikoaren arteko kide-tasuna estrategikoa baita (ez taktikoa), produzioari buruz egoera berbera bait dute hauek eta haiek (ikus 242, 243, eta abar).

Hots, gorago esan dugunez, klase horrek parte hartu nahi du ez diru-etekinetan bakarrik, baizik-eta lantegiaren zuzendaritzan, teknika-aldakuntzetan, produzio-bideen moldagintzan, eta abar. Klase berri hunek jakin egin nahi du zertan ari dan (oso kontutan hartzekoa izan da, huni buruz, Sueziako laponiar mietan gertatu diran azkeneko oporrak).

U.R.S.S.-eko sozialismo-mota

Garaudyk ez du inolaz ere 1917-ko Urrilaren erreboluzioa arbuiatzen, eta ez gutxiagorik ere. Aitzitik, goratu egiten du Leninen iraultza zaila. Baina bide hura, eta gerokoak, egokiak izan baziran Errusian orain dala 53 urte, horretxegatik esan diteke marxismo bete-betean, dogma-keria hutsa dala bide hura, bere hartan, « exportatu »-nahi izatea. Marxisten hitzez baliatuz, exportazio hori « mekanizismo » hutsa da : dialektikak besterik eskatzen du ; alegia, sozialismora eraman nahi dan herria aztertu, eta azterketa hortan argi egiteko Marxen metodoa eras-tea. Hortatik dator Garaudyren ideia nagusia : herri eta kondaira-hein desberdini, « modelo » edo sozialismo-mota desberdin dagokiola.

U.R.S.S.-eko sozialismo-mota stalinismoa da. Ez orain dala 40 urte bakarrik ez. Stalinismoa ez da Stalinekin hil. Zenbait aldetatik aurre-rago joan da inoiz baino, Garaudyren ustez : Stalinek Yugoslabiako « modeloa » 1948-an kondenatu zuenean, ez zuen Belgrado armada batez okupatu ; Brexnefek, aldiz, okupatu egin zuen Praga 1968-an.

U.R.S.S., hortaz, dogmakerian eta stalinismoan egon zan eta dago ; eta ez du sozialismo-mota bakar bat baizik onhartzen : berea.

Hots, « modelo » hori ez da inundik ere sozialismoa aurrerarazteko bide egoki bat. Alderantziz uste du Garaudyk — guk geuk bezela, bestalde —. Eta, hau dala-ta, stalinismoaren azterketa kupidagabe bat egiten digu liburuan. Errazkiegi « ahaztu » nahi diran gertakari lazgarri batzuk gogorazten dizkigu orrialde trinkotan (ikus 113 eta urrengoak). Stalinismoaren lurjotzea ikaragarria izan zan nekazaritzan : « 1929-an U.R.S.S.-ek 34 miliun zaldi zituen ; 1933-an 16 miliun besterik ez zan gelditu, zaldien erditik gora (nekazariak berek) akabatuak izan bait ziran » (Partiduaren sozializatzearen kontra ezin burrukarik eginik) ; « gauza bera idi-behien %-eko 45-ean, zerrien heren bat, eta ardien laurden bat » (114)... « 1936-etik 1939-ra, Partiduko miliun bat et'erdi arduradum edo alderdikide (hau da : partiduaren erditik gora) gartzelatik pasa ziran ; eta 1936-azkerotik, gartzelatan eta kontzentrazio lan-datan, hamar miliun eta gehiago sobietar hil ziran » (124). Stalinismoak, « zientziaren izenean » noski, Einsteinen Errelatibitatea, Plancken Quanta-Teoria, Zibernetika, Psikanalisisa, Estrukturalismoa, Kubismoa, eta abar, « burgeskeriatzat » kondenatu zituen (ikus 122, 123).

Garaudyk ez du bere iritzia izkutatzen : « hilketa » horiek likistu eta orbandu egin dute sozialismoa, eta eskuindarren jokoa egin. Stalinismoa goitik behera, Erresuma-legeetan, Partiduan bertan, eta besteekiko hartu-emanetan arras erauzi artean, sozialismoak uxatu egingo ditu herriak, ezkerre zatituko ; eta sozialismoaren garaitzapena ezina izango da.

Yugoslabiako modeloa

Titok bereala igarri zuen burokrazikeriaren arrisku larria ; eta, Stalinengandik urrunduz, 1948 ezkerotik (eta areago 1950 ezkerotik) autogestioan barrena abiatu zan.

Zertan zan kakoa ? Gauza bat dala produzio-bideak gizartetu edo sozializatzea ; eta beste gauza bat produzio-bide horiek guziak erresumaren eskuetan jartzea. Bigarren jokabide hunek (stalinismoarenak) ugazaba bakar bat jartzen du buru : ugazaba hori herria da teoriaz ; baina laister herriari Erresuma nagusitzen zaio, eta segidan gero, erresumari Partidua, Partiduari aparatoa, eta aparatoan sekretarioa. Arrisku hau Leninek berak salatu zuen bere azkeneko urteetan.

« Sozialista Demokraziaren arazo-giltzarria hauxe da : langileagandik hurbildu behar dirala bai politikazko erabakiak, bai ekonomiazko erabakiak ; eta ez langile hori, alderantziz, erresuma izengabe eta urrutia dala-ta, kanpoko politikazko indar ilunen menpeko jarri » (225). Garaudyk ez du esaten, bestalde, baina jakina da : bai Djilasek, bai trotskizaleek, bai anarkistek, bai soziologiariek, bai beste anitzek, komunismo ofizialaren burokrazikeria hori salatua dute aspaldidanik.

Titok bereala somatu zuen hori ; eta, lehen urrats gisa, 1950-ean ehun mila aparato-postu deuseztatu zituen. Handik hilabete batzutara lantegiak langileen beren eskuetan jarri zituen, autogestio erregela bihurtuz (189).

Hortatik aurrera hiru ideia nagusik gidatu dute Titoren politika :

- 1) Erresuma-jabegoa gizarte-jabego bihurtu behar da ; eta ez du erdi-puntu bakar batek (denen jakitun omen) gizarte-jabego hori gobernatu eta erabili behar, zuzenki bertako langileek berek baizik.
- 2) Ezina da « erresumaren iraungitzea eta desegitea » gerotik gerora utziz joatea : hasi egin behar da trikatu gabe erresuma (baita erresuma klase-erresuma bait da) benetan ahultzen eta desegiten. Hori dala-ta, dezentralizatu egin behar da aurrenik maila eta arazo guzietan, indarra behereko instituzioetan jarriz, et ez goikoetan.
- 3) Erresuma eta Partidua alkargandik berezi behar dira (kristau erresumetan Erresuma eta Eliza berezi behar dirala esan ohi dan bezelatsu). Partiduak eragin egin behar du, bai, herria zuzpertz, arazoetan argi egin, eta abar. Baina bide soil horietaz baliatuz nagusitu behar du ; ez erresumako administrazioaz eta zanpabideez jabetuz, eta aurkariak hileraziz.

Sozialismoaren etsaiek eta moskuzaleek majina bat kritika eginatik ere, sozialismo-mota hunek arrakasta haundia izan du. Aurrerapenpuntua mardula da Yugoslabiako ekonomian, « dinar » a trukagarri da merkatuan, eta autogestioak ez du ez anarkiarik ez desordenurik ekarri. Are gehiago : « ekonomi-aldaketa GUZIAK (Garaudyk berak azpimarkatzen du hitza, ez nik) baita U.R.S.S.-ean ere, 1950 ezkeroztik Yugoslabiak asmatutako eta obratutako modeloruntz egin dira » (182). Zer izan diteke hau baino arrazoin sendoagorik ?

Dubcek'en modeloa

Garaudyk ez du huntaz kapitulu berezirik egiten ; baina lerro gutxitan agirian uzten du bere iritzia : Garaudy Dubceken alde dago osotara, Titoren alde dagoen bezela.

• 97-gn. orrialdean — Kautsky eta Leninen arteko diferentziak aztertzean — hiru okerbide salatzen ditu stalinismoan, ez marxismotik eta ez leninismotik heldu ez dirala baietsiz :

- 1) sozialismogintzan *partidu bakar bat* behar dan teoria ;
- 2) langileriaren agintea *komunista alderdiak* obratu behar duen teoria ;
- 3) burgesiaren *ekonomi-ondasunak* herriaren eskuetan jarri ondoren ere, burgesiaren *politika-eskubideak* urritu, mugatu edo-ta ukatu egin behar diran teoria.

Garaudyren ustez, hain zuzen, hirurak dira kaltegarri eta stalinismo huts. Okerreria horien kontra PLURALISMOA proposatzen du Garaudyk, joera huntan oso aurrera joanez (ikus, batez ere, filosofia eta politika-ekintza berezi-beharraz diona, 286 eta urrengoetan).

Dubceken « udaberrian », irakurleak dakikeanez, hiru puntu horietxek, eta ondorioak, ikutu zituen Dubceken zuzendaritzak (147, 148) :

- 1) Iritzi-askatasuna legetuz, eta zentsura kenduz (prentsan, irrastian, eta abar) ;
- 2) Yugoslabiaren bidetik, « langile-batzordeak » sortuz, autogestioaren bidetik ;
- 3) Partiduaren monolitismoari oldartuz, barne-askatasuna utziz, eta gutxiengoari (minoritari) barneko zabalkunde-eskubideak libro utziz ;
- 4) Erresuma eta Alderdia alkargandik bereziz ;
- 5) Partiduaren izkutukeriak amaituz, egindakoen eta eginkizunen kontua herriari emanez (bileren agiriak prentsara emanez, eta abar) ;
- 6) Bigarren sozialista alderdi bati legetasuna emanez.

Hunek U.R.S.S.-eko burokrazia jarri zuen arriskutan ; ez sozialismoa, baina U.R.S.S.-eko sozialismo-mota ; eta horregatik, dogmakeriagatik, Pragara sarrerazi ziran tankeak. Hots, tankeok onhar-arazi duten sozialismo hori « ez dagokie inundik ere herrien beharrei eta nahikundeei » (149).

Esan beharrik ez dago, noski, batez beste Garaudyk bezela, Dubceken joera nik onhartzen nuela, Titorena onhartzen dudana bezela.

Hiru ohar bukatzeko

Garaudyren liburua ona da, irakurgarri, gogoangarri. Hiru hutsune aipatu beharra dagoela uste dut halere :

- 1) Nazio-arazoaz ez du deusik esaten, ezta Yugoslabiaz ari danean ere ; eta hau tamalgarria dala nazio-arazoa dugun euskaldun sozialistontzako. Garaudyk badaki, hau bai ; ez da beraz ahaztua : « Jakinaren gainean utzi ditugu — dio — alde batera Yugoslabiako arazo berezi batzuk, nazio-multzotasunaren arazoa batez ere, eta federalismoaren bidez eman zaion soluzio herrikoia » (229). Tamala guretzat, benetan.
- 2) Pentsamentu-askatasunaz ezer gutxi azaldu du liburuan. Zeharka bai, noski, askatasun horren alde agertzen da liburuan : bai stalinismoa aztertzean, bai Yugoslabiako « kritika-eskubideak » aipatzean. Ez, nere ustez, behar bezin sakonki eta bereziki.
- 3) Liburua komunistentzako egina da batez ere ; eta batzutan teologia-kutsua dario. Egiaren iturritzat behin eta berriz Marx eta Lenin hartzen ditu, akats guziak Stalini leporatuz. Gramsci eta Marcuse txit kontuz aipatzen ditu, ez bait zaizkio Marx eta Leninen pareko iruditzen. Proudhon gogoratzen duelarik, kondenatuz egiten du (apaizek Lutero aipatzean bezelaxe). Bakunin, Trotsky, Sartre, Russell, Luckas, ez ditu Garaudyk behin ere laguntzaile gisa hartzen : bildur da nabarmenki profetetatik at irtetzen. Hots, Garaudyren teoria asko argi eta garbi, marxista ofizialetara jo gabe, pentsatzaile horiengan aurki diteke. Gauza bera Alderdiaren monolitismoari dagokionez : Togliattiz gain ere balegoke nor aipaturik : Trotsky bera ! Ofizialtasun berbera beste gaietan.

Oso liburu ona, halere ; eta gogoz eta benetan irakurleari gomen-datzekoa.

TXILLARDEGI.